

# AUTOGESTIOA ETA JOERAK

Frantziako autogestiozaleen artean, denek ez dutela ez jatorri ez jokabide bera, aise ulertzen da. Autogestioak haustura gisako banakuntza bat sortzen duela sozialisten artean, hori ere lehen begi kolpez ikus daiteke.

Orain, Frantziako autogestioaren aldeko taldeen panorama bat eduki nahi bada, banakuntza hobeago baten esperantzaz eta egoerá gehiegi sinpletu gabe, hiru joera nagusi bereiz daitezkeela uste dut.

Lehenbizikoan, organizazio handi batzuk jar genitzake. Esaterako, CERES (hots, Alderdi Sozialistaren ezkerria) eta CFDT. Hauen eritzian, autogestioa, burrukabide bat baino gehiago, helburu bat da. Ihaz hartu zuen CFDTek jokabide hori, eta "gauchiste" askok salatzen dio geroztik. Joera honentzat, bada, autogestiozko sozialismoa da geroko gizarte modu beharrezkoa.

Bigarren joeran, CLAS taldea jar genetzake. (CLAS: Comité de liaison pour l'autogestion socialiste). Taldea baino gehiago, taldeen Batzorde bat da. Lau taldek eratu dute zuzenki Komite hori: PSUk (Parti Socialiste Unifié), CICEk (Centre d'initiative communiste), *Objectif Socialiste* delakoak eta AMRek (Alliance marxiste révolutionnaire). Ofizialtasun gehiagorekin eta gutiagorekin, *Vie Nouvelle* kristau taldea ere barnean dago, eta berdin *Politique Hebdo* aldizkaria ere. Herri hezkuntzan diharduen kristau jatorrizko talde asko ere inguruan dabil. Hauentzat denontzat, autogestioa helburua da bai, baina bai eta burrukabidea ere. Autogestioa ez dute geroko geroan uzten. Oraintxetik eraman nahi dute ekintzara, dela antolamenduetan, dela bilkuretan, etc. Eztabaida handia izan da, esaterako, organizazio horiek ez ote duten alderdi estruktura apur-tu eta desegin behar, hain zuzen autogestiozaleak dire-lako.

Eta azkenik, autogestiozaleen artean, talde anarkista batzuk ere ba dira, hala nola, ORA (Organisation révolutionnaire anarchiste) eta MCL. Aginteari eta hierarkia guztiei dieten gorrotoa ezaguna da. Talde handietan ere ez dute beren burua ikusi nahi. Autogestioaren aldeko agertu da, 68.eko maiatzaz geroztik, joera honetako zenbait talde.

Autogestioa iraultza eredu eta bide bezala hartzen duen CLAS horrek, ateak zabalik eduki nahi ditu betiere. Datozenak hartzeko prest bakarrik ez, baina bila ere ba doazela esan daiteke. Beren burruka modua herri osora hedatu nahi lukete. Batik bat herri eta famili elkarten aldetik, gazteen mugimenduen aldetik, berdin organizazio gabeko eta baztertuen aldetik dute erantzunik hoberena. Estrategia politiko bezala, gogoratzen da, nola PSUk, azkeneko Kongresuan, "herri batasunaren hitzarmena" proposatu duen. Hauk ere hor sartuko lirake. Zenbat dira denetara? Michel Rocard-i sinestekotan, 1.200.000 pertsona inguru.

Joera honen ustetan, eta M. Rocard-en hitzekin, autogestioa ez da "intelektual zenbaiten ametsa". Hitzaren aurretik esperientziá ezagutua izan da. Historia luzea du, gutienez Pariseko "Commune"tik hasi beharrekoa. Baina, historia adierazi eta berridatzi ordez, autogestiozaleen gogoia historia egitea delako, geroari buruz haiek ba dakite zer behar duten ukatu eta zer onhartu. Gizarte erdikoitu eta burukratikoak oro ukatzen dituzte. Estatuak, Rocard-en eritziaren arabera, monedaren arazoa, plangintzarena, diplomaziarena eta defentsarena eramango lituzke, gainerako eginkizun guztiak herri mailako talde sareari utzirik.

Oraingoz, egia esan behar da, minoria bat da, autogestio sozialistaren atzetik dabilena. Eta gero? Geroak esango. Hala ere, Machadoren "bidea ibiliz egiten da" delakoak bidea markatzen ez badigu ere, mugimendu bat adieraz diezaguke.

Joan Mari TORREALDAI

diezaguke, deiskigu  
diete, deutsee  
digu, deusku

dio, deutso  
genetzake, geinke  
genitzake, geinkez

## BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Erakunde honek,  
Bilbon eta Probintzia osoan,  
gizarte premia guztietarako  
laguntzarik zabalena ematen dihardu,  
eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zeure dirua gordetzeko:

## Caja de Ahorros Vizcaina

Bulego nagusia:

Plaza de España, Bilbo  
Tel. 243600 - 211390

Hiriburuan 17 agentzia

Probintziako herri nagusietan  
75 ordezkari-tza

Madrilera agentzia:

I.C.C.A. Alcalá, 27  
Tel. 2214995